

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 10/2018 Foru Dekretua, martxoaren 13koa. Onartzea nekazaritzako ustiattegietan inbertsioak egiteko laguntzen oinarri arautzaileak aldatzea eta laguntza horien 2018rako deialdia

Nekazaritza ustiattegietan inbertsioak egiteko laguntzen oinarri arautzaileak aldatzea, Diputatuen Kontzejuaren apirilaren 12ko 31/2016 Foru Dekretuak onartu eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 10/2017 Foru Dekretuak aldatutakoak, EAEko Landa Garapeneko 2015-2020ko Planaren testuinguruan, eta laguntza lerro horren deialdia 2018rako onartzea.

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 31/2016 Foru Dekretuaren bidez, M04.1 neurrirako, "Nekazaritza ustiattegietan inbertsioak egiteko laguntza" izenekoak, ematen diren laguntzen oinarri arautzaileak onartu ziren, EAEko Landa Garapeneko 2015-2020ko Planaren testuinguruan, 1305/2013 zenbakidun Araudian ezarritako mugen barruan, baita laguntza lerro horren deialdia 2016rako ere.

Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 10/2017 Foru Dekretuaren bidez oinarri arautzaile horiek aldatu ziren hein batean eta 2017rako laguntzak deitu ziren.

2017ko maiatzaren 30ean, Europako Batzordeak, C(2017) 3859 erabakiaren bidez, EAEko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren bigarren aldaketa onartu zuen, zeinak laguntza lerro horri eragiten baitio hein batean eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuaren bidez, besteak beste, laguntza horien esparru araudia ezarri zen. Ondorioz, haien oinarri arautzaileak aldaketa horietara egokitu behar dira, eta alderdi batzuk zehaztu behar dira, aurreko deialdietatik ateratako esperientzian oinarrituta.

Bestalde, kontuan izanik laguntza lerro horiek izapidetzeko Arabako Foru Aldundiko 2018ko gastu aurrekontuan kreditu nahikoa dagoela, beharrezko egiten da urte horretarako deialdia onartzea.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. M04.1 neurrirako, "Nekazaritza ustiattegietan inbertsioak egiteko laguntza" izenekoak, laguntzen oinarri arautzaileen aldaketa hauek onartzea. Oinarri arautzaile horiek Diputatuen Kontzejuaren apirilaren 12ko 31/2016 Foru Dekretuak onartu eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 10/2017 Foru Dekretuak aldatu zituen.

1.1 3. artikuluko azken aurreko paragrafoa aldatzea. Onuradunen baldintza orokorrak ezartzen dira han, eta honela geratuko da idatzita:

Neurri horren ondorioetarako, 3.1 artikuluko honetan ezarritako baldintza orokorrak, 3.1.c, 3.1.f, 3.1.g eta 3.1.h. idatz-zatiak izan ezik, beteko dituzte M06.1 neurriaren bidez ("Nekazari gazteek enpresak sortzea") instalatzeko prozesuan dauden gazteek, nahiz, instalatu aurreko urrats gisa, M06.1 neurriaren bidez, erakunde publiko sustatzailek batek legez eraturikoa nekazaritza enpresen mintegi batean, mintegi horren bulegoetan dauden bitartean, prestakuntza jasotzen duten gazteek. Gainerako baldintzak betetzat joko dira, gazteak M06.1 neurriari laguntza eskatzean hartutako konpromisoa baita, eta instalatzeko prozesua amaitu aurretik bete beharko baititu bere enpresa planari jarraituz.

1.2 5. artikuluari 10. idatz-zatia eranstea, zeinak inbertsioen berariazko baldintzak eta mugak ezartzen baititu, honela idatzita:

5.10. Inbertsioak ustiategietan, haien nekazaritza azalera hondamendi natural batek kaltetu dituenetan eta/edo haren eraikinak halabeharrezko istripuek suntsitu dituztenetan eta/edo ares-tiko kasuen ondorioz makineria kaltetuta gertatzen denean.

Salbuespenez, inguruabar horiek gertatu eta gutxienez ustiapenaren deskribatutako akti-boen baren ehuneko 50i gutxienez eragiten dietenean, eragindako inbertsioak dirulaguntza jaso ahalko du.

1.3 Inbertsio Plana arautzen duen 6. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea. Honela geratuko da idatzita:

6.1 Ustiategiko inbertsio planak honako inguruabar hauek frogatu beharko ditu kasu guztietan, NMEKak izan ezik, txosten tekniko eta ekonomikoa eta berariazko kalkuluak direla medio:

Ekonomiaren ikuspegitik, inbertsioak justifikatuta daudela eta bideragarriak direla.

Inbertsioak gauzatutakoan, ustiategiaren titularren bizi eta lan baldintzak hobetzea.

Ondore horietarako, kontuan hartu behar da nekazaritzako ustiategi batek inbertsio planaren bideragarritasuna azterketa tekniko eta ekonomiko baten bidez egiaztatzen duela ondokoak betetzen dituenetan:

Laguntza eskatzeko unean, NLU bat xurgatzeko ahalmena izatea. Lagundutako inbertsioen eta ustiategian sortutako lan kantitatearen igoeraren artean kausa-ondorio erlazio zuzena bada, betetzen dela ebazteko inbertsioak egin ondoren aurreikusitako egoera hartuko da kontuan.

Inbertsioak egin ondoren, aurreikusitako unitateko lan errenta (ULE), gutxienez, mendialdeetako edo eremu behartsuetako erreferentziako errentaren ehuneko 10 eta gainerako eremuetako erreferentziako errentaren ehuneko 30 izango da.

Aurkeztutako inbertsio planaren bideragarritasuna ziurtatzen duen ikerketa tekniko-ekonomikoa V. eranskinean xedatutakoaren arabera egingo da.

Dirulaguntza jaso ezin duen inbertsioaren gastuak ezartzen dituen 7. artikuluko 19. idatz-zatia aldatzea. Honela geratuko da idatzita:

7.19 Erostea aukera ematen duten errentamendu kontratuei lotutako kostuak, esate baterako, errentatzailearen marjina, interesak birfinantzatzeko kostuak, gastu orokorrak eta aseguru gastuak.

Arestiko idatz-zatia ez zaie aplikatuko erosteak aukera duten errentamendu alokairuei, laguntza eskabidea foru dekretu hau indarrean jarri aurretik aurkeztu bada; nolahi ere, eskabide berria aurkeztu beharko dute aukera hori gauzatzen den deialdian. Kasu horretan foru dekretu honetan eta dagokion deialdian eskatutako baldintzak eta betekizunak beteko dituzte.

1.5 8. artikulua ("Kostuak neurtzea eta inbertsioak balioztatzea") 1. idatz-zatia aldatzea. Hona hemen haren testua:

8.1 Laguntza honen ondoretarako, egindako inbertsioak kostu lagungarri gisa ebaluatzeke helburuz, honako helbide honetan argitaratutako ebaluazio modulu ofizialei eta diruz lagungarri diren gehieneko inbertsioaren mugei men egin beharko zaie:

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/osoa_dokumentazioa/es_def/PDR_modulos_4_1_4_3.pdf.

1.6 8. artikulua ("Kostuak neurtzea eta inbertsioak balioztatzea") 6.8. idatz-zatia gehitzea. Hona hemen haren testua:

8.6.7 5.7 eta 5.10 artikuluen kariatara eskatutako inbertsioetarako, dirulaguntza jaso dezakeen aurrekontua kostuak neurtzeko eta xedearen arabera diruz lagundu daitezkeen gehieneko mugen irizpide orokorren pean geratuko dira; halaber, aurkeztutako inbertsio aurrekontutik seguruengatik ordaindutako edo ordaintzeko zenbatekoa kenduko da.

1.7 1.1 idatz-zatiaren lehen marratxoa eta espedienteak onuradunaren tipologiaren arabera sailkatzeko irizpideak ezartzen dituen 10. artikuluko 1.3 idatz-zatiko lehen paragrafoa aldatzea, eta artikuluko horri 1.4 idatz-zatia eranstea. Hona hemen haien testua:

10.1 Onuradunaren tipologia.

10.1.1 Banakako eta titulartasun partekatuko ustiategiei dagokienez, ondoko puntuazioa aplikatuko da, pilatu ezin daitekeena:

– Hasten diren edo EAEko Landa Garapeneko 2015-2020ko Planaren M06.1 neurriari (“Nekazari gazteek enpresa sortzea”) heldutako enpresaren plana garatuz sektorean sartzeko prozesuan dauden gazteek sustatutako inbertsio planak: (instalatzeko prozesuak dirauen bitartean, aurkeztutako enpresa planaren arabera) 45 puntu.

10.1.3 Onuradunak ziurtatzen badu nekazaritzaren arloko prestakuntza iraunkorreko ikastaroetara joan dela, gutxienez 40 orduz, zentro ofizial homologatuek emandako ikasturte guztiak zenbatuta, 5 puntuko osagarria izango du, zehaztaperen hauekin:

Aurreko laguntza deialdia hasi zenetik oraingo deialdia hasi denera arteko denboraldian eginda egon behar dira ikastaroak. Eskatzaileak ez bazuen laguntza eskaerarik egin edo aurreko deialdian ez bazuen laguntza jaso, ikastaroak burutzeko epea deialdiaren aurreko urte naturaletik deialdia hasi arte zenbatuko da. Nolanahi ere, ikastaro bat ezin da balidatu deialdi ezberdinetan puntuak zenbatzeko.

10.1.4. 5.7 eta 5.10 artikuluetan adierazitakoak eragindako inbertsioak egiteko kasuan eragindako ustiategien kasuan, ustiategiaren onuradun gisa jasotako puntuazioa, adina eta sexua gorabehera, gehienekoa izango da, 45 puntu.

1.8 Espedienteak Ustiategiaren tipologiaren arabera sailkatzeko irizpideak ezartzen duten 10. artikuluko 2.1 idatz-zatiaren bigarren marratxoa aldatzea eta marratxo bat gehitzea amaieran. Honela geratuko da idatzita 2.1 idatz-zati hori:

10.2 Ustiategiaren tipologia.

10.2.1 Ondoko tipologietako bati atxikitako ustiategietan sustatutako inbertsio planei beste 20 puntu gehiago (ez metagarriak) eman ahalko zaizkie:

– Lehentasunezko ustiategia, Nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko uztailearen 4ko 19/1995 Legeak xedatutakoari jarraiki.

– Ekoizpen ekologiko ziurtatura edo kalitate ziurtatuko programetara bildutako ustiategiak. LGPren 3.1 azpineurriak, “Nekazariak kalitate erregimenetan lehen aldiz parte hartzeko laguntza” babesten ditu aurrekoak.

– Eskaera egiten den ekitaldiaren aurrekoan, nekazaritza eta ingurumen laguntzei lotutako espedienteak onartuta izan duten ustiategiak.

– Lur ureztatuetako laboreak (jateko patata eta landatzeko patata, erremolatxa, ortuariak, tabakoa eta bazka landareak) landatzeko ustiategiak, gutxienez, 10 hektareako azalera dutenak.

– Ekoizpenaren ehuneko 40, gutxienez, zirkuitu laburren bitartez merkaturatzen duten ustiategiak.

– Euren ekoizpenaren ehuneko 50 baino gehiago EAEk ofizialki onartutako ekoizleen kooperatiba baten edo ekoizleen talde baten bitartez merkaturatzen duten ustiategiak.

1.9 Espedienteak inbertsioaren tipologiaren arabera sailkatzeko irizpideak ezartzen dituen 10. artikuluko 3. idatz-zatiaren zazpigarren marratxoa aldatzea. Honela geratuko da idatzita 10.3 artikuluko hori:

10.3 Ustiategiaren tipologia.

Beste 25 puntu, ez metagarriak, lortuko dituzte ondoko inbertsio planek:

– Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dagoen M16 “Lankidetza (35. artikulua)” lankidetza neurriari atxikitako inbertsio plan diruz lagungarriak.

– Abeltzaintzaren estentsifikazioa sustatzen duten inbertsio planak (abereen zama, gutxienez, 1 ALU/ha murrizten dutenak) , edota abereen zama >5 ALU-koa izanik, <2 ALU/ha-ko zamara aldatzen direnak.

– Nekazaritza lurzoruan ingurumen inpaktu kaltegarriak arintzeko inbertsio planak: ongarrien erabileraren eragingarritasuna hobetzeko ekipoak (traktoreak ez), eta simaurra nahiz mindak biltegitatzeko eta banatzeko hobekuntzak.

– Animalien higiene, osasun eta ongizate baldintzak hobetzeko inbertsio planak.

– Ustiategiak darabilen energiaren kontsumoa murrizteko inbertsio planak.

– Ureztapen instalazio finkoak jarri edo biomasa darabilten berokuntza ekipoak (barruko erabilera) instalatzeko inbertsio planak.

– Ekoizpenaren zuzeneko kostuak murrizteko eta lanaren ekoizkortasuna hobetzeko inbertsio plan berritzaileak.

– Uztaren bilketa hobetzeko eta ekoizpenen kalitatea hobetzeko inbertsio planak.

1.10 Laguntzen forma, ehunekoa eta zenbatekoa arautzen duen 11. artikulua 4.2. idatz-zatia aldatzea. Hona hemen haren testua:

11.4.2 Makinak eskuratzeko oinarrizko dirulaguntza ondoko ehuneko metagarrien arabera gehituko da:

– Gehienez ere ehuneko 15, inbertsioan parte hartzen duten ustiategi edo bazkideen kopuruaren arabera:

5 ustiategiraino: Ehuneko 0.

6-12 ustiategi: Ehuneko 5.

13-20 ustiategi: Ehuneko 10.

20 ustiategi baino gehiago: Ehuneko 15.

Gehienez ere ehuneko 10, inbertsioari lotutako makinaren tipologiaren arabera (II. eranskinean jasotakoek jarraiki).

Makinak oro har: Ehuneko 0.

Teknologikoki aurreratutako makinak: Ehuneko 5.

Makina ezarri berriak: Ehuneko 10.

1.11 Espedienteen izapidetzea arautzen duen 13. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzea. Honela geratuko da idatzita:

13.4 Foru dekretu honetan aurreikusitako laguntzak ematea norgehiagokaren araubidean izapidetuko da. Baldin ez badago kreditu nahikorik laguntzak emateko betekizunak betetzen dituzten espediente guztiei, honela jokatuko da:

Lehenengo ebazpena emango da, eta bertan sartuko dira ezezkoa jaso duten espedienteak eta baiezkkoa jaso duten espedienteak, gordetako kreditua agortu arte, hautatzeko irizpideak

ezarri ondoren lortutako lehentasun ordenari jarraituz. Baiezkoa jaso duten gainerako espedienteak erreserban geratuko dira bigarren ebazpena eman arte, zeina beranduenik ere deialdia egin den urteko azken hiruhilekoan emango baita; ebazpen horrek deialdia behin betiko ebatziko du, eta laguntza esleitu die aurrerago ezarritako lehentasun ordenaren arabera hala dagokien espedientei baldin kreditua gehitu bada, eta ukatu egingo zaie laguntza, krediturik ez badago.

1.12 I. eranskinean jasotzen den "Ustiategiaren marjina gordina"ren definizioaren bigarren paragrafoa aldatzea. Hona hemen haren testua:

Marjina gordin teorikoa kalkulatzeko, Garapen Ekonomikoko eta Lehiakortasuneko Sailaren 2016ko martxoaren 31ko Aginduan xedatutakoa edo unean-unean indarrean dagoen legeria bete behar da.

1.13 Eskabidearekin batera oro har aurkeztu beharko den dokumentazioa arautzen duen IV. eranskineko A idatz-zatiko 9. eta 10. idatz-zatiak kendu eta berriak jartzea, eta hurrengo idatz-zatien zenbakiak berriz jartzea. Hona hemen haien testua:

Egokia denean, ustiategiaren urteko fakturazioaren egiaztagiria (azken 3 ekitaldiak onartuko dira).

Egokia denean, ekoizpena merkaturatzeko erabilitako ekoizpen kooperatibaren edo nekazaritza ekoizleen taldeen ziurtagiria eta interesdunak egindako urteko fakturazioarena. Nekazaritza ekoizleen talde baten bidez merkaturatuko balu, baita nekazaritza ekoizleen taldea EAEko nekazaritza ekoizleen taldeen erregistroan izen emanda egotearen ziurtagiria ere.

Beste erakunde batzuei inbertsio bererako laguntza eskatu ez izanaren adierazpena.

Egokia denean, ustiategian kontratatutako langileen 10-T agiria.

Ustiategian 06.1 neurriaren bitartez sartzin diren gazteen eta 6.1 neurriaren bitartez instalatu aurreko urrats gisa erakunde sustatzaile publiko batek legez eraturako nekazaritza enpresen mintegi batean prestakuntza jasotzen duten gazteen kasuan, eskabidea aurkezteko unean 3.1 artikuluko baldintza guztiak betetzen ez badituzte, enpresa planari jarraituz instalazio prozesua amaitu aurretik haiek betetzeko konpromisoa.

Inbertsio plana eta haien bideragarritasunaren ikerketa, 6.1 neurriaren bitartez instalatu aurreko urrats gisa erakunde sustatzaile publiko batek legez eraturako nekazaritza enpresen mintegi batean prestakuntza jasotzen duten gazteen kasuan.

1.14 Egingo diren inbertsioen arabera eskabidearekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa arautzen duen IV. eranskineko E idatz-zatiaren laugarren marratxoa aldatzea, ureztatzeko instalazioen kasuan. Hona hemen haren testua:

– Ureztapen instalazioak hobetzeko:

Ureztatzaile komunitate batekoa bada, eskatzaile bakoitzarentzat banako ziurtagiria eranskinaren bidez.

Gainerako kasuetan, ureztapen sistema instalatuko delako lursailetan ur emakida dagoela egiaztatzen duen agiria.

Aurrekontua, identifikatutako lurzatiei zerrenda adierazten duena, udalerrri, poligono, lurzati eta SIGPAC esparruen arabera, azalera adieraziz. Aurrekontua lurzati bakoitzarentzat egingo da, eta aurrekontu globala aurkeztu ahalko da lurzatiei laborantza unitate bat eratzen badute.

Ureztapen sistema instalatuko den lursailaren edo lursailen jabetza egiaztatzen duen katastroko deskribapena edo agiria.

Hala dagokionean, jabearen baimena diruz laguntzen diren inbertsioak gauzatzeko.

1.15 Inbertsio planaren bideragarritasuna kalkulatzeari buruzko V. eranskina gehitzea, honela idatzita:

V. ERANSKINA

Eskatutako inbertsioen bideragarritasuna kalkulatzeko, prozesu orokor bat egingo da espediente guztientzat. Bertan, marjina gordina ateratzeko indarreko araudia aplikatzen da, Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomikoko eta Lehiakortasuneko Sailaren 2016ko martxoaren 31ko Agindua.

Ustiategiaren berekiak (lurralde kapitala, eraikinak eta instalazioak, makinak eta ekipoak eta abereak, hala badagokio) horretarako programa informatikoan ezarritako balioen datuen arabera baloratzen dira, baloratu behar den kapitalaren tipologiaren arabera.

Eraikinentzat kontuan hartzen den hondar balioa ehuneko 10ekoa da 25 urtetik aurrera eta zero 10 urtetik gorako makinentzat.

Ustiategiaren marjina garbia kalkulatzeko, laboreen edo jardueren marjina gordinari kapital berekiaren amortizazio gastuak (ehuneko 10 makinentzat hamar urteko epean eta ehuneko 4 eraikinentzat 25 urtez) eta ustiategiaren gastu orokorrak edo bestelako gastuak (eraikin eta instalazioetan ehuneko 1,5ekoa da eta makinetan ehuneko 5ekoa) kentzen zaizkio. Familiako eskulana ez da baloratzen; soldatapekoa, aldiz, urteko 1.800 orduekin zenbatzen da (8 ordu bider 225 lanegun), hots, 88,88 euro eguneko.

Halaber, beste gastu orokor gisatzat jotzen da aplikatutako kontribuzioa, 18,03 euro/ha, gasolioko gastuak, laborantzaren arabera urteko gastu bat zenbatesten da eta urteko prezio ofizialen balioa aplikatzen zaio. Lubrifikatzaileko gastua kalkulatzeko kalkulaturako urteko gasolio kontsumoaren ehuneko 5 aplikatzen da.

Unitateko lan errenta (ULE) kalkulatzeko laguntzaren oinarri arautzaileen eranskinean xedatutakoa beteko da; han definitzen da kontzeptu hori.

Uztailaren 4ko 19/1995 Legeak, Nekazaritza Ustiapenak Modernizatzekoak, azken xedapenetako seigarrenean, xedatzen du Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, egun Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, erreferentziako errentaren zenbatekoa ezarriko duela aldiaren behin, Lege horren 2. artikuluko 12. idatz-zatian aurreikusitakoaren arabera, eta 2017rako 28.549,87 eurotan geratzen da finkatuta.

ULE parametroa eta erreferentziako errenta erkatuz, inbertsio planaren bideragarritasuna egiaztatzen da, eta bete beharko da mendiko aldeetan edo alde xumeetan ULE, gutxienez, erreferentziako errentaren ehuneko 10 dela eta, gainerako aldeetan, ehuneko 30 dela bete beharko da; ULE bat xurgatzeko ahalmena izateaz gain.

Ustiatetikiko elementu produktiboak hobetzeko planaren laguntza eskatu aurreko kanpainakoak izango dira.

Bigarrena. Laguntza lerro horren 2018ko deialdia onartzea, ondoko xehetasunen arabera:

Eskaerak aurkezteko lekua, epea eta modua: Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den biharamunetik 35 egutegi egun, ustiategiaren kokapenari dagokion nekazaritzako eskualde bulegoan edo nekazaritza garapeneko zerbitzuan, hori dena urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan xedatutakoa ere betez. Epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Eskabideak inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira eta Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 31/2016 Foru Dekretuaren IV. eranskinean, foru dekretu honetan emandako idazketan, zehaztutako dokumentazioa ere erantsi beharko zaio.

Hautapen irizpideak: honako deialdi honi lotutako laguntzak emateko espedienteen hautapen irizpideak oinarri arautzaileen 10. artikulua foru dekretu honen bidez onartutako testuan ezarritakoak izango dira.

Laguntzen zenbatekoak: 2018ko deialdirako laguntza horien zenbatekoak oinarri arautzaileen 11. artikuluan ezarritakoak dira, foru dekretu honek onartutako idazketan.

Kreditu erreserba: Arabako Foru Aldundiaren 2018ko ekitaldirako gastuen aurrekontuaren 40.1.01.42.01.770.00.04 partidaren kostura ("Nekazaritza ustiattegietako inbertsioak. Zuzeneko laguntza"), 4.378.274,08 euro guztira, urteko hauetan:

2018: 1.378.274,08 euro (Hartu erref. 18.1.18.105.887/000).

2019: 1.500.000,00 euro (Hartu erref. 18.3.18.105.010/000).

2020: 1.000.000,00 euro (Hartu erref. 18.3.20.105.003/000).

2021: 500.000,00 euro (Hartu erref. 18.3.21.105.002/000).

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahalko dira urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzenak, 21.2.b) artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidaren edozein zioerengatik gerta daitekeen kredituaren gehikuntzazatik ere.

Hirugarrena. Deialdia ebatzi ondoren, aurrekontu partidaren kreditu gehikuntzarik geratuz gero, emandako dirulaguntzei uko egin, deuseztatu edo zenbateko txikiagoak ordaindu direlako, eta aurrekontuko kreditua nahikoa izan ez delako zenbait eskabideri erantzun ez bazaie, kreditua eskabidea horietan erabiliko da, honako dirulaguntza hauen oinarri arautzaileetan ezarritako lehentasun irizpideei jarraiki.

Laugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteko deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren errekurso guztiak ebazteko.

Seigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2018ko martxoaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE